



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EBAZPENA, UPV/EHUKO IRAKASLE IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTORE KATEGORIAKO PLAZA BATEN DEIALDIAN DAGOEN HUTSEGITEA ZUZENTZEKO (DEIALDIAREN DATA: 15/11/2023, ZENBAKIA: 883)

GERTAKARIAK

Lehenengoa. – 2023ko azaroaren 15ean, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen Ebazpenaren bidez, lehiaketa baten deialdia egin zen, Irakasle Laguntzaile Doktore kategoriako plaza hau betetze aldera:

DEIALDIA: 2023/2024
DEIALDIAREN ORDENA: 883- PADCL2-D00142-4
SAILA: Ingeniaritza Elektrikoa
JAKINTZA ARLOA: Ingeniaritza Elektrikoa
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: Elebiduna

Bigarrena. – Plazaren fitxan hutsegite bat antzeman da, burutu beharreko jardueren atalean. Zehazki, hau agertzen da:

Teknología Elektronikoa/Tecnología Eléctrica

Horren ordez, ondokoa jarri behar da:

Teknologia Elektrikoa/Tecnología Eléctrica



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Ebazpen hau emateko ondoko arauak aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 2/2023 Legea, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa, martxoaren 4ko 40/2008 Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, Errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta Gobernu Taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena; aipatutako deialdia egin zuen Ebazpena, 2023ko azaroaren 15ekoa, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearena eta, oro har, kasuari dagozkion gainerako arau orokor guztiak.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak erabaki hau emateko ahalmena du gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiari jarraiki.

Hirugarrena.- 39/2015 Legeko 109.2 artikulua araberan, *“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”*. Bigarren Gertakarian esan bezala, hautaketa-prozesuan hutsegite bat izan da, zuzendu beharrekoa, artikulua horretan aipatzen direnetakoa izanik.

Beraz, ondokoa

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Ingeniaritza Elektrikoa Saileko Irakasle Laguntzaile Doktore kategoriako 2023/11/15eko Deialdiko 883-PADCL2-D00142-4 plaza dela-eta izandako hutsegitea zuzentzea. Beraz, plaza horren fitxan, egin beharreko jardueren atalean, *“Teknologia Elektrikoa/Tecnología Eléctrica”* jarri behar da, ez *“Teknologia Elektronikoa/Tecnología Eléctrica”*.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Bigarrena.- Ebazpen hau Ingeniaritza Elektrikoa Sailari jakinaraziko zaio, baita Epaimahaiko idazkariari eta, adierazitako helbideetan, gaian interesa izan dezaketen guztiei ere. Irakasle eta Ikertzaileen Zerbitzuko Lehiaketa Atalak ere bera jasoko du.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Bera jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke haren aurka, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo, auzi-jartzaileak nahi badu, bere etxeari dagokion Epaitegian, hilabete biko epean, hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.2.a) eta 14.1 artikulua betez).

Leioan, sinadura digitalaren egunean

ERREKTOREA
Iz. Esk., Federico Recart Barañano

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea/Vicerrector de Personal Docente e Investigador